

ARTXAKO, ESPATAPIEDRAS, ARRANKANPAÑA ETA LEÑERO

Mendatako Elias Sololuzek kontatuta

Aita eta semea izan ei ziran, eta semea bera aita baino sendoagoa, eta egin ei eban bostehun kintaleko katxaba berantzako semeak. Joan da semeori bidean bostehun kintaleko katxabatxuagaz eta itxaso eskinera heldu zanean gizon bat bera barka moduan egiten gizonak pasetako, eta pentsatu ei eban bere artean:

– Hauxe gizona sendoa! beronen modukoa topetea be... hobe topetan ibiltea be! neu be banok baina hauxe be...

– Etorriko zara neugaz –esan eutsan–.

– Bai –esan eutsan besteak–.

Joan dira biak eta egin behar dabe juntea lauk, lau onenak batu behar dabe. Joan dira harantzago eta bestea mendia eusten herria atrapeu ez deian, mendia jeusten hasi da eta bestea sorbaldagaz mendia eusten.

– Zer egiten dok hor?

– Lagunek hilko dira!

– Hil daitezela!

Artxako bostehun kintaleko katxabea egin ebanari deitzen eutsen, Arrankanpañas itxasoan lagunek pasetan egon zanari eta Espatapiedras mendia eusten dabenari. Artxako izan zan sendoena hiruretatik, eta Espatapiedrasede mendiarri itxi deutso eta danba! mendia behera.

– Zu etorri geugaz –esan deusie beste biak–.

– Bueno hiru junteu gara laugarrena topau behar dogu.

Joan dira eta basoan beste morroi bat topatu dabe, arbolarik haundiena hartuta bihorra¹ eginda, arbola atara eperditik eta kargak egin eta egin eta egin.

– Neu be sendoa nago baina... hauxe be sendoa dok! –pentsatu ei eban Artxakok bere artien– da...

– Zer, etorriko zara geugaz ala!

– Bai zergaitik ez!

Juntatu dira laurak eta Leñerok, mendian kargak egiten egon zanak esan ei eban:

– Orain zer egin behar dogu?

– Ba herri batera joan behar dogu hantxe dago etxe bat elegantea eta han ezin leike lorik egin, kalaberak ibiltzen dira gabaz.

– Mekauen Artxako! horixe egin behar dogu –esan deutesie beste hirurek–.

Joan dira ohera eta kalaberak danean zehar gabaz. Hartu kalaberak eta latigo hasi ei ziran olgetan bata besteagaz baina ha Judas izan ei zan eta esan eutsien:

– Hor atearen atzean dagoz palak eta plazara joan behar dozue laurok, eta gitxien danak kozinan egiteko.

– Ondo dau.

Joan dira plazara, eta Artxako gehien, gero Arrankanpañas, Espatapiedras eta azkenean Leñero mendikoa. Leñero gitxien izan zan legez besteek zera esan eutsien:

– Egin kozinea.

Eta beste hirurak palaka plazan eta jatekoa prest egoten zanean kakoagaz ipinita txilina euki ei eban deitzeko. Kantsatu dira hirurak palaka eta bota dabe Espatapiedras, Leñero zertan dagoen eta... Leñero jatordua ipinten dagoelakoan, eskatzean odoletan total mankatuta topau dau Espatapiedrasek:

– Zer pasetan jatzu?

– Ez dakit, ezer be ez!

Botau dabe beste biak laguna baina arduetan plazako biak, eta joan dira etxera eta:

– Baina zer pasetan da hemen? biok mankatuta bazagozie? Bueno orain hirugarren gitxien danak harekek preparau behar dau jatekoa –esan eban Artxakok–. Zuek biok etorri neugaz plazara eta orain Arrankanpañas kozinean.

– Jeusiko nauk ala ez nauk jeusiko?

– Ba... bajatu.

Eta etorten zanean harek indarra be gehiago eta hirugarrena be igual mankatuta itxi dau. Laugarrena bera Artxako, joan da kozinetan eta beste hirurak plazara, eta zera esan ei eban:

– Jeusiko nauk ala ez nauk jeusiko?

– Ba gura badok jeusi hadi!

Bestie goitik behera ta:

– Txarrihaundi zu zara?

Jeusi zanean, heldu saihetsetatik eta atearen atzean kisketean eskei eban Artxakok Judas, eta dalan dalan kanpaia jo berak, eta palaka plazan egon ziran beste hirurak:

– Gehiago dok hori, horri itxi egin behar jako.

– Hor jauk atearen atzean eskeita –esan deustie Artxakok–.

Joan dira atearen atzera eta bat be ez, odol arrastoa, segidu eta leza baten barrura joan zala konturatu ziran:

– Bueno orain gitxien danak bota soka eta hor behera joatea.

Esan ei eban Leñerok bere artean soka behera joan zanean:

– Orain badakit nik zer egingo deustien honeek niri, sokea soltau eta berton barruan itxi.

Baina orraitio altxatu ei eben.

– Zer... topatu dozu ezer hor behean ala?

Ezer kontestau bez, bigarrenak be haixe eta hirugarrenak be bardina, laugarrena Artxako izan zan eta hareri gorroto euki ei eustien, eta bera soka behera joan zala bere artien esan ei eban:

– Honeek bota nabe behera baina... soka be botako dabe!

Bajatu zan eta esan eta izan, sokiori be goitik behera bota eben. Han behean lekuak egon ei ziran itzelak, da gerrea egiteko gauzekin kuartuak beteta eta bere artean:

– Orain nago ni ona, orain hauxe lehenengo atea jo behar dot ba!

Atrebidu hutsa zan Artxako, eta atea jo ebanean bere alabeak urten eta esan ei eustan baze:

– Ene! zelan zatoz hona ba?

Esplikau ei eustan zer pasau jaken eta alabaorrek:

– Begitu han dagoz ezpata brilundunak eta denetarikoak, baina ugerduna hartun besteak txarragoak dira eta, hartzen badozu ugerduna zuk bestea trageu egingo dozu, ezpataka egiten dozuenean.

– Ba ezpataka zeinek gehiago egiten dauan.

– Ondo dau, ondo dau.

Sartu ei ziran kuartuan eta egon ei ziran ezpata piloa briludunak, ugerdunak, hojalatazkoak klase guztietakoak:

- Nik hauxe berau hartuko dot.
- Zelan hori ba? hobea dozu hau hojalatazkoa edo briluduna.
- Ez honexegaz beronegaz egingo dot.

Hasi dira eta Artxakok belarri eskina kendu deutso, zatia kendu deusanean deabruak eskapeu egin dau. Deabruak engainau egin gura eban baina bestea jakitun egon zan zein ezpata hartu behar eban irabazteko. Itzelezko gosea etorri jakon Artxakori eta belarria ipini ei eban jateko eta haginkadea emon eutsanean bestea alaru baten, eta Artxakok esan ei eban:

- Nik zer egin behar dot orain hemen ba?

Etorri ei zan morroi bat eta:

- Zuk zer gura dozu gora ala behera?
- Nik gora.

Artxako, Jesus zan, eta hementxe akabetan da istorioa.

1 Bihorra: Kargak eta lotzeko erabiltzen den egur moldakorra

Mendata, gure geurea danentzat.

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo, 2002